


## Zientzia Astea 2014

### **Zientzietako, Matematiketako eta Teknologiako goi-mailako graduatuen EAEko tasa (% $\text{\textcircled{0}}$ 29,4), Europako eta Espainiako batez bestekoen ginetik**


Azaroaren 5etik 9ra **Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XIV. Astea** ([Zientzia Astea](#)) ospatuko dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k zenbait datu eskaini nahi ditu zientzia eta teknologiaren arloan EAEko gazteek duten goi-mailako prestakuntzari buruz.

Zehazkiago, Zientzietako, Matematiketako eta Teknologiako goi-mailako graduazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen tasak hartuko ditugu aintzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ([ISEI-IVEI](#)) emanak. Tasa horrek zera adierazten du: 20 eta 29 urte bitarteko zenbat gaztek eskuratu duten hirugarren mailako titulazioa (honako hauek barne hartzen dituena: unibertsitate-irakaskuntza —CINE 5A— nahiz goi-mailako heziketa-zikloak, hau da, CINE 5B, baita doktoretzak eta masterrak ere, CINE 6) Zientzietan, Matematiketan edo Teknologian, adin-talde bereko mila laguneko.

Tasa hori % $\text{\textcircled{0}}$  29,4koa izan da 2010ean, eta gorakada nabarmena izan du 2000tik aurrera (urte hartan % $\text{\textcircled{0}}$  20,2koa baitzen).



EB27ko Estatu batean ere ez dago horren tasa alturik, eta Europako (‰ 12,5) eta Espainiako (‰ 13,9) batez bestekoak baino askoz ere garaiagoa da EAEkoa.



Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen arabera, Europako herrialde horiekiko alde hori Lanbide Heziketa Teknologikoak (CINE 5B delakoak) EAEn duen garrantziari zor zaio.

Edozein kasutan, Zientzien, Matematikaren eta Teknologiaren arloko hirugarren mailako graduazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duten gazteen tasa orokorrean alde handiak daude, sexuaren arabera: EAEn, 2010ean, ‰ 41,2koa da gizonen artean, eta ‰ 17,3koa emakumeen artean. Hau da, 24 puntuko aldea dago gizonen eta emakumeen artean.

Sexuen arteko alde handi hori ez da berria. Hirugarren mailako graduazioa (CINE 5A, 5B eta 6) duten emakumeen tasak gora egin du azken urteetan, baina baita gizonenak ere (hamar puntuko aldea baino handiagoa dago 2000tik 2010era).

<b>Zientzietan, matematiketan eta teknologian hirugarren mailako graduazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen tasen bilakaera (2000-2010) EAEn, sexuaren arabera (tasak, milako)</b>			
<b>Urtea</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Aldea</b>
			<b>(Gizonak – Emakumeak)</b>
2000	29,1	10,9	18,2
2001	33,7	13,3	20,4
2002	35,3	13,3	22,0
2003	35,2	14,8	20,4
2004	36,6	15,1	21,5
2005	37,2	15,4	21,8
2006	38,0	16,5	21,5
2007	38,1	15,8	22,3
2008	38,6	16,6	22,0
2009	36,9	15,9	21,0
2010	41,2	17,3	23,9

Gainera, gizonen eta emakumeen artean dagoen alde hori Europako altuena da. Europar Batasunean, gizonen eta emakumeen arteko tasen aldea 2010ean 8,3koa izan da, batez beste. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago EAEn Zientzian eta Teknologian goi-mailako graduazioa eskuratu duten emakumeen tasa Europako garaiera dela.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

